

# Diversity Advantage

ANIZTASUNAREN ABANTAILA ONDOEN BALIATZEN ETA ADIERAZTEN DUEN  
TOKI EKIMENARENTZAKO SARIA

EUSKAL HERRIAN GARATZEN DIREN EKIMENEN DEIALDIA



**Intercultural cities**

Joint action of the Council of Europe and of the European Commission



**RECI**

Ciudades Interculturales  
Ciutats Interculturals  
Kultura Arteko Hiria  
Cidades Interculturais



Europako Kontseiluaren 2015eko esperientziari jarraituz, eta laCaixa Gizarte Ekintzaren laguntzarekin, “RECI Erronka 2016 Diversity Advantage” bultzatzen du RECI-Kulturen Arteko Hirien Sareak, “aniztasunaren abantailaz” hobekien baliatu diren ekimenak aurkitzeko.

Euskal Herriko udalerrietan Diversity Advantage deialdia hedatzen laguntzen dute Bilbao, Donostia eta Getxoko –RECIko- Udalek.

Era askotako izan daitezke ekimenak (proiektuak, politikak, metodologiak, kudeaketa motak, etab.), bai eta egileak ere (administrazio publikoak, enpresak, gizarte eragileak, ikastetxeak, , kultura eta kirol zentroak, etab.)

“Aniztasunaren abantaila” erakusteko jardunbide egokienak aurkitzea du xede Erronkak, eta konkurtso mota duen formatuan aurkezten da, non arlo garrantzitsuena motibazio, ikasketa eta kontzientziazio prozesua den. Azken helburua da, bai ordezkari politikoak, gizarte zibileakoak eta baita hiritarrak orokorrean kontzientziatzea; hori guztia, aniztasunaren inguruan dagoen buru-paradigma aldatzeko, eta “arazo”, “gatazka” edo “mehatxu” kontzeptuengandik bereiztu eta “aukera”, “baliabide” eta “abantaila” kontzeptuekin duen lotura indartzeko.

## BAINA, ZER DA “ANIZTASUNAREN ABANTAILA”?

Europako Kontseiluak Intercultural Cities programaren bitartez bultzatzen duen kultura arteko ikuspegiaren funtsezko kontzeptua da “aniztasunaren abantaila”, zeina premisa honetatik abiatzen baita: gizartearen maila guztietako garapen osorako oinarrizko aukera eta baliabidea da aniztasuna.



Aniztasunari kultura artekotasunaren printzipioetatik abiatuta ekiten bazaio (berdintasuna, diskriminaziorik eza, integrazioa, interakzio positiboa, etab.), abantaila izan daiteke emaitza are positiboagoak lortzeko (sozialak, ekonomikoak, hezkuntzakoak, kulturalak, ongizate mailakoak..), aniztasunik edo hura kudeatzeko modu jakin bat ez balego baino hobekien betiere: horra kontzeptu horren mamia.

“Emaitzak kuantitatiboki eta kualitatiboki “neurgarriak” izatea da kontua, eta hein handi batean aniztasunari berari zor zaiola hobekuntza frogatzea emaitza horiek.



Frogatuta dago, izan ere, lantalde pluralek— enpresak, gobernuak, elkarteak...— ahalmen handiagoa dutela produktibitateari, sormenari, gatazka konponketari eta berrikuntzari dagokienez. Aniztasunaren abantaila horiek eta beste batzuek lortzeko, ordea, denen eskubide berdintasunaz gain, aukera berdintasuna ere bermatu behar dute gizarteek. Tokian tokiko gobernuak, berriz, politika berritzaile eta integratzaileen bitartez lagundu dezakete ahalmen hori sustatzen.

Aniztasunaz baliatzeak ez du zerikusirik erakunde, hiri edo negozio baten irudia garbitzearekin: gobernatzeko, **kudeatzeko eta erabakiak hartzeko filosofia bat da.**

## ZEINEK HAR DEZAKEEN PARTE?

**Erakunde pribatu eta publiko orori zabalik dago deialdia:** GKEei, toki eta lurralde mailako administrazio publikoei, enpresei, elkartei, gizarte zibileko plataformei eta abarri, **Euskal Herriko edozein udalerritan garatzen badute lehiaketara aurkeztutako ekimena.**

## EGUTEGIA

Hautagaitzen aurkezpenak ondorengo helbide elektronikora bidali beharko dira: [info@ciudadesinterculturales.com](mailto:info@ciudadesinterculturales.com)

**2016ko urriaren 31 arte** aurkez daitezke ekimenak, deialdi honetan ERANSKIN modura ageri den partaidetza fitxa-ereduari jarraikiz.

- Bilbon: [inmigracion@ayto.bilbao.net](mailto:inmigracion@ayto.bilbao.net)
- Donostian: [kulturaniztasuna@donostia.eus](mailto:kulturaniztasuna@donostia.eus)
- Getxon: [inmigracion@getxo.eus](mailto:inmigracion@getxo.eus)

## PROIEKTUEN BALIOESPEN PROZESUA

RECIko epaimahai bat arduratuko da lehen fasean aurkeztutako ekimenen balioespen prozesuaz, eta proiektu finalistak hautatuko ditu.

Proiektu horiek sakonago aztertu eta RECI sareko hirien artean partekatu eta zabalduko dira. Hiri horiek aukeratuko dituzte hiru ekimen aipagarrienak.

Irizpide hauen arabera egingo da balorazio prozesua:

<b>Irizpidea</b>	<b>Azalpena</b>	<b>Puntuazioa</b>
<b>Garrantzia</b>	Proiektuaren, politikaren edo ekimenaren eta erronkaren helburuen arteko baliokidetza maila da. Xedea ez da ekimen arrakastatsuak hautatzea, edo aniztasunak eragin ditzakeen erronkak gutxiatea, baizik eta aniztasunaren abantaila frogatzen dutenak lehenestea, alegia, aniztasunik gabe ez litzatekeela emaitza positiborik lortuko erakustea.	<b>BAI / EZ</b> (Proiektu edo ekimen batek ez badu lehen irizpide hori betetzen, ez da ebaluazioarekin jarraituko)
<b>Gizartean duen eragina</b>	Emaitza positiboak lortzen proiektu edo ekimen batek zenbat laguntzen duen balioetsiko da, bai jada frogatu diren emaitzak, bai epe ertain eta luzera xede populazioari eta, oro har, gizarteari egiten dioten ekarpenak erdiesten duen, alegia. Nolabaiteko ebaluazio edo neurtze sistema kuantitatibo eta/edo kualitatiboren baten bitartez frogatu behar da dagoeneko lortutako inpaktua.	<b>30%</b>
<b>Berrikuntza</b>	Proiektu edo ekimenaren berrikuntza testuinguru zehatz batean: zerbitzua edo prozesua, edo negozioa, produktua, inplementazioa, antolaketa edo gizarte eredu. Berrikuntza ez da sortzen jatorri askotariko jendea proiektu batean sartze hutsagatik, baizik eta aniztasun hori abantaila erreal eta zehatz eraginkorki bilakatzetik.	<b>20%</b>
<b>Iraunkortasuna</b>	Denboran zehar irauteko eta emaitza positiboak izaten, haien eusten edo hobetzen jarraitzeko ekimenak daukan gaitasuna	<b>25%</b>
<b>Berrerabilgarritasuna</b>	Beste herrialde batzuetako hiri, erakunde, enpresa eta abar erakartzeko eta haietan aplikatua izateko proiektuak edo ekimenak duen gaitasuna. Beste nonbait erabili bada, hori ere balioetsiko da	<b>25%</b>

## SARIA

Ez da dirusaririk emango: esperientzia aipagarrienen azterketa sakonagoa egiteko eta haiek plazaratzeko eta ezagutarazteko estrategia bat eskainiko da, Europako Kontseiluaren bidez, bai Espainiako estaturako, bai nazioarterako, hartara esperientzia horiek beste herrialde batzuetara egokitzen laguntzeko.

## HAUTAKETA PROZESUA

Hautaketa prozesua 2016ko azaroa eta Abendua bitartean egingo da. 2017ko otsailean sarien banaketa izango da.

# RECI HARREMANETARAKO GUNEAK EUSKAL HERRIAN



**Berdintasun, Lankidetz, Bizikidetz eta Jaietako Sails. Bilboko Udala**

[inmigracion@bilbao.eus](mailto:inmigracion@bilbao.eus)

Telf.: 944 203 145



**Kultur Aniztasunaren Bulegoa. Donostiako Udala**

[Kulturaniztasuna@donostia.eus](mailto:Kulturaniztasuna@donostia.eus)

Telf.: 943 481732



**Immigrazio eta Kultura arteko Unitatea Getxoko Udala**

[inmigracion@getxo.eus](mailto:inmigracion@getxo.eus)

Telf.: 944660151

# ERANSKINA

## PARTAIDE IZATEKO

## FITXA EREDUA

### A) OINARRIZKO ARGIBIDEA

- Proiektuaren edo ekimenaren izenburua
- Erakundea (harremanetarako datuak: izena, helbidea, proiektuaren arduraduna, helbide elektronikoa, sare sozialak, erakunde mota, jarduera esparrua)
- Zertan datzan ekimena edo proiektua (esaldi bat)
- Nola aprobetxatu duen “aniztasunaren abantaila” (esaldi bat)

### B) INFORMAZIOA GARATZEA

- Esperientzia edo ekimena: helburuak, jarduerak, onuradunak, iraupena, proiektuan esku hartzen duten bazkideak edo eragileak, kudeatzeko metodoak
- Zein onura jaso du ekimenak aniztasunaren abantailatik? Orain arte, zein emaitza positibo lortu du (kualitatibo eta / edo kuantitatibo)?
- Zein erronka, eginkizun edo eragozpeni aurre egin diozue?
- Zer ikasi duzue?
- Nola egingo duzue proiektuaren edo ekimenaren jarraipena? Sostengatzeko eta errepikatzeko ahalmena du?

GEHIENEZ ERE, 7 ORRIALDE ERABIL DITZAKEZUE HASIERAKO AURKEZPENA EGITEKO. GERO, ARGIBIDEAK ZABALTZEKO EDO ALDERDIREN BAT AREAGO ZEHAZTEKO ESKA GENEZAKE.

